

## **CIC CIC CIC biomaGUNEk RSEQren González Ciamician saria eman dio Marcella Bonchio irakasleari**

RSEQk Italiako ikertzaileei ematen dien [González-Ciamician](#) nazioarteko sari espainiar-italiarra jaso du CIC biomaGUNEen Paduako Unibertsitateko [Marcella Bonchio](#) irakasleak, zentroko Ikerbasque irakasle diren Luis Liz Marzán eta Maurizio Pratoren eskutik (AXA Chair).

Alde biko sariak herrialdeetako kimika-elkarteen arteko akordioetatik sortzen dira, bi herrialdeetako ikertzaileen arteko lankidetzak sustatzeko eta batzuen eta besteen jarduera modu osagarrian ezagutarazteko. Izan ere, alde biko sari horien bidez, saria jasotzen duten herrialdeko hainbat unibertsitate eta ikerketa-zentrotan ematen dituzte hitzaldiak saridunek. Hala, Bonchio irakasleak hitzaldi hau eman du CIC biomaGUNEen: “Supramolecular Architectures for Artificial Photosynthesis: The Quantasome Vision”

Sari honek agerian uzten du, beste behin, harreman bikainak daudela nazioarteko komunitate zientifikoan. Alde biko aintzatespen horien testuinguruan, Italiako Kimikako Elkarteak (SCI) Luis Liz Marzán irakaslea aintzatetsi du González Ciamician sari hispaniar-italiarrarekin.